



Familia agurgarriak:

Jakingo duzuen moduan, Hezkuntza Departamentuak ikastetxeetan jardunaldi jarrairen inguruan bozkatzeko aukera eman du berriro. Ikastetxeko zuzendaritzak URBI ETA ZUMEDIA Guraso Elkartekin batera jardunaldi jarrairen inguruko proiektu batean lanean ibili da. Proiektu hau familiei aurkeztuko zaie eta bozketa baten bitartez onartzen baldin badute, Hezkuntza Departamentuan aurkeztuko da.

Gure seme-alaben irakasle batzuek garatu dute proiektu hau eta bertan ordutegia, jostaldiak, eskolako irteera orduak eta jantoki eta ekintza osagarrien ordutegiak adierazi dituzte.

Proiektu honetan Guraso Elkartek ere parte hartu dute ikastetxeak eskaintzen dituen ekintza osagarriez gain beste batzuk antolatuz.

Hezkuntza Departamentuak garraio eta jantoki ordutegiei onarpena eman die, prozesu honi hasiera emanaz.

Proiektuak dagoeneko ikastetxeko irakaslearen eta eskola kontseiluaren onarpena dauka.

Bukatzeko, pausurik garrantzitsuena falta da: ikaslearen errolda osatzen duten familien artean jardunaldi jarrairen proiektuaren bozketa egitea.

**JARDUNALDI
JARRAIAREN
PROIEKTUA
BOZKATU**

2021•12•09

**EZ BADUZU
BOZKATZEN
EZEKO BOTOA DA**

Zumedia Guraso Elkartea Urbi

BOZKETAREN INGURUAN

Ondorengo galderari erantzun behar zaio:

Eskola jardunaldiaren aldaketa agertzen duen proiektuaren alde zaude, eskola jardunaldi jarraia pasatuz?

BAI

EZ

Nork bozkatu dezake?

Familia bakoitzak ikastetxean dituen seme-alaba kopuruaren adina boto eman dezake. Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikaslekoa ez da kontuan hartuko bozketa honetarako.

Aurrez-aurreko bozketa egiteko NANA eta familia unitateko onarpena aurkeztu behar da.

Nola bozkatzen da?

- **Aurrez-aurreko bozketa abenduaren 9an**
- **Bozketa telematikoa Educaren bitartez azaroaren 30ean eta abenduaren 1 eta 2an.**

Zergatik da garrantzitsua bozkatea?

Behin betiko onarpena izateko, beharrezkoak dira errolda osoaren 3/5eko botoak, 6. mailako familiak kontuan hartu gabe.

Ematen ez diren botoak ez dira txuri baizik eta ezezkoak izango dira. Jardunaldi jarraia nahi baduzu, bozkatu egin behar duzu.

Parte hartzerik gabeko bozketa batek ez du familien iritzia isladatzen

PROIEKTUAREN INGURUAN

•IRTEERA ORDUTEGIA

Jardunaldi jarraia onartzekotan, irteerarako ordutegiak zabalduko lirateke:

14:00 , eskola ordutegiaren bukaera

15:30 , Haur Hezkuntzako irteera, jantoki zerbitzuarekin.

15:40 , Lehen Hezkuntzako irteera, jantoki zerbitzuarekin.

16:30 Jantokia eta ekintza osagarrien erabilera egingo dutenentzako irteera ordutegia

Aukera dago etxean bazkaltzeko eta arratsaldeko ekintzetara bueltatzeko ere.

Modu honetan familia kontziliaziorako behar desberdinak kontuan hartzen dira



•EKINTZA OSAGARRIAK

Ekintza osagarriak jantokian gelditzen direnentzako eta etxean bazkaltzen dutenentzako eskaintzen dira.

Guraso Elkarteko ekintzek izen-emate kopuruaren arabera aldaketak izan ditzakete

IKASTETXEKO IRAKASLEGOAK DOAINIK ESKAINTZEN DITUEN EKINTZAK:

Haur Hezkuntzarako:

- Psikomotrizitatea
- Ipuin kontaketak
- Ludoteka

Lehen Hezkuntzako 1. ziklorako (1. eta 2.):

- Irakurketa sustapena
- Ludoteka

Lehen Hezkuntzako 2. eta 3. ziklorako (3., 4., 5. eta 6.):

- Mahai jokoak
- Etxerako lanak

ZUMEDIA GURASO ELKARTEAK ANTOLATUTAKO EKINTZAK:

Haur Hezkuntzarako:	- Izan Artista - Dantzarekin jolasean - Yoga - Erraldoiak
Lehen Hezkuntzarako:	- Antzerkia - Zirkoa - Yoga
Haur Hezkuntzako 2. mailatik aurrera:	- Lego tailerra
6. mailarako:	- Mekanografia tailerra

URBI GURASO ELKARTEAK ANTOLATUTAKO EKINTZAK:

Haur Hezkuntzarako:	- Erraldoiak - Bururako erronkak - Musika - Ikertzaile txikiak
Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailarako:	- Bururako erronkak - Lego - Irristaketa - Erraldoiak
Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailarako:	- Eztabaida taldea - Zinemaren mundua - Bururako erronkak - Lego
Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. Mailarako:	- Eztabaida taldea - Mekanografia - Bururako erronkak - Lego

